

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

#### Diputatuen Kontseiluak 2016ko urriaren 25eko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– Erabakiak:

##### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 688/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, azaroaren 3ra atzeratzen duena Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 2ko ohiko bilkura.

Diputatuen Kontseiluaren 689/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, onartzen dituena Arabako Foru Aldundiaren irizpideak honi buruz: ea Batzar Nagusiek aintzat hartu behar ote duten Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko Foru Arauan (24/1989 Foru Araua, uztailearen 19koa) zenbait artikulua aldatzeko foru arauaren proposamena.

Diputatuen Kontseiluaren 690/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, Ibon Oñate Zamalloa jauna izendatzen duena Foru Aldundiaren ordezkari Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Aholku Batzordean, 2016/01/08tik 2018/12/31rainoko epean, bat etorri hiru lurralde historikoek onartutako erabakiekin.

Diputatuen Kontseiluaren 691/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, "Arabako Lanak SA" sozietatearen likidazio organoari proposatzen diona Juan Carlos CorralTorreiro jauna sozietate horren zuzendari-kudeatzaile kargutik kentzea eta egindakoengatik hari eskerrak ematea.

##### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 692/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, zeinaren bidez ordaintzen baitzaio "Naturgolf, SA" sozietateari diru zenbateko bat galerak konpentsatzeko.

##### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 693/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, onartzen duena jarduera ekonomikoen gaineko zerga aldatzeko foru arau proiektua, eta hura Arabako Batzar Nagusietara bidaltzea, presazko prozedura bidez izapidetu dadin.

Diputatuen Kontseiluaren 694/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, baliozkotzen duena Kontabilitate Zerbitzuak agiriaren gaitzespen txostena egiteko xede duen jarduketa bat.

Diputatuen Kontseiluaren 695/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, onartzen duena, Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskaturik, konpromiso kredituaren transferentziako 23/2016 espedientea, 544.608,56 euroko zenbatekoarekin, "Azpiegitura Hidraulikoaren Esparru Akordioa" eta "Agu-rain-Dulantziko HUA" izeneko partidetarako, egokitzearen aurrekontu esleipena kontratazio espedienteak izapidetzeko epeari.

Diputatuen Kontseiluaren 696/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, onartzen dituena, Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskaturik, konpromiso kredituaren transferentziako 25/2016 eta 26/2016 espedienteak, 121.931,87 euroko zenbatekoa egiten dutenak guztira, "Ibilbide Berdeen Sarea egokitu eta hobetzea" eta "Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2017-2030 Plana" izeneko partidetarako, egokitzearen aurrekontu esleipena kontratazio espedienteak izapidetzeko epeari.

Diputatuen Kontseiluaren 697/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, onartzen duena 30/2016 kreditu gaitzearen espedientea, 302.258,- euroko zenbatekoaz, "Hiri hondakinen gaikako bilketa kudeatzea" partida funtsez hornitzeko, ontzi hondakinak sailkatu eta banantzeko Jundizko instalazioaren ustiaketa zerbitzua kudeatzeko kontratuaren 2016ko azken hiruhilekoko fakturazioa ordaintzeko, Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskatuta.

#### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 698/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, onartzen dituena urriaren 27ko 609/2015 Erabakiaren bidez esleitutako "Lapuebla de Labarcan A-4202 errepidea harri erorteen aurka babesteko proiektua"ren obretako azken egiaztagiria eta gehikuntza.

Diputatuen Kontseiluaren 699/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, Firmes Alaveses SAri esleitzen dizkiona "A-2625 errepidearen zorua 321+000 kilometrotik 324+500 kilometrora finkatu eta egokitzeko eraikitze proiektua" gauzatzeko obrak. Zenbatekoa: 190.837,82 euro, BEZa barne; gauzatzeko epea: 2 aste.

Diputatuen Kontseiluaren 700/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, Yarritu SA enpresari esleitzen diona "A-2620 errepidean 24,080 kilometrotik 27,850 kilometrora erroadura geruza birgaitzeko eta berriro jartzeko proiektua"ren lanak gauzatzea, 185.775,34 euroko zenbatekoaz, BEZa barne, eta 2 asteko epearekin.

#### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 701/2016 Erabakia, urriaren 25ekoa, onartzen duena Arabako Squash Federazioarekin hitzarmen berri bat izenpetzea eskola kirolaren kudeaketarako, baita horren eta urriaren 13ko 652/2009 Erabakiaren bidez onartutako gainerakoen gastua ere.